# 0 AURREKARIAK

Biscaytik Bizkaiko Foru Aldundiak sustatutako proiektua da. Izaera berritzaile eta aitzindari nabarmena du nazioartean, eta honako helburu hauek ditu: Administrazioa herritarrengana hurbiltzea, komunikazio-kanal berri baten bidez, Internet bidez; bien arteko elkarreragina erraztea; Bizkaiko toki-erakundeen tresna informatikoak homogeneizatzea, haien barne-kudeaketa eta herritarrekiko harremana hobetzeko; eta Bizkaia nazioarteko erreferente bihurtzea, Udal Administrazioan informazioaren eta ezagutzaren teknologietan aplikatzeko.

Helburu hori betetzeko, proiektuak hiru ardatz ditu:

- Herritarrentzako posta elektronikoko zerbitzua.
- Udalerrietarako programa informatikoak eta herritarren tramitaziorako web-ataria.
- Nazioarteko erreferentziazko teknologia-zentro bat sortzea.

Egoera horri irtenbidea emateko, Biscaytikek Bizkaiko Toki Administrazio guztien bazkide teknologikoaren papera hartzen du, udal edo mankomunitate baten behar informatiko gehienak estaltzen dituen Udal Administrazio Kudeatzailea edo GAMa eskainiz.

Biscaytik Fundazioa bere plataformaren eraldaketa teknologikoko prozesu batean murgilduta dago, bere aplikatiboen eguneratzea egiteko eta honen etorkizuneko bilakaerarako oinarriak finkatzeko helburuarekin.

# 1 XEDEA

Lehiaketa honen helburua da Bizkaiko toki-erakundeen udal-erroldaren kudeaketa-sistemaren eraldaketa digitala egiteko behar diren lanak kontratatzea.

# 2 TESTUINGURUA ZEHAZTASUN TEKNIKOAK

Adjudikaziodunak gaitasuna izan behar du entitate kontratatzaileari aholkularitza eta kudeaketa funtzional eta tekniko osoa emateko; horretarako, berehala jarriko ditu kontratuaren esku arlo guztietako espezialistak, eta Bizkaiko toki-erakundeen udal-errolda kudeatzeko sistemaren eraldaketa digitalerako beharrezkoak diren zeregin guztiak egingo ditu.

Zerbitzua adjudikaziodunak emango du, kalitatez, zorroztasunez eta eraginkortasunez, eta zerbitzua zuzenean edo zeharka arautzen duten indarreko lege, erregelamendu, arau eta xedapen guztiak erabat beteko ditu.

Kontratuaren xede diren jardueren martxa egokia uneoro gainbegiratzeaz arduratuko den pertsona bat izendatu beharko da.

Adjudikaziodunak zerbitzua ematen duten langileak kontrolatu eta ikuskatuko ditu, eta, gaixotasunen, oporren eta absentzien kasuan, beste langile kualifikatu batzuekin ordeztuko ditu.

Hainbat kanaletatik eman ahal izango da zerbitzua: posta, telefonoa edo aurrez aurre.

Edonola ere, BiscayTIK Fundazioak eskatuta egingo dira lanak, BiscayTIK Fundazioak plegu honetan xede diren gaietarako beste enpresa adjudikaziodun batzuk eduki ditzakeela kontuan hartuta.

## 2.1 Proiekturen deskribapen orokorra

Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana Planaren esparruan, azaroaren 15eko TER/1235/2023 Agindua argitaratu zen. Horren bidez, toki-erakundeen udal-errolda kudeatzeko sistemak digitalki eraldatzeko eta modernizatzeko 2023ko dirulaguntzen oinarri arautzaileak onartu eta deialdia egin zen.

Lurraldeari buruzko informazio-sistema hobea izateak, elkartua baina pertsonen informazioarekiko independentea, eta etxebizitza bakoitzari lotutako kode bakarra izateak errolda askoz ere modu eraginkorragoan kudeatzea ahalbidetuko luke, bai eta bizikidetza-unitateen eta etxebizitza berean bizi diren pertsonen benetako kopurua askoz hobeto zehaztea ere.

Denbora errealean eguneratutako errolda bat izateko, biztanlea bizi den lurraldetik independizatzeko eta EINren eta udalen arteko komunikazio kopurua minimizatzeko, eta biztanle bakoitzaren etxebizitza behar bezala identifikatuta edukitzeko, 2022an Online Erroldaren proiektua sortu zen, Lurralde Politikako Ministerioak eta EINek babestua.

EINren online erroldaren proiektu honek Errolda bat aurreikusten du, informazioa biltegiratzeko eta kudeatzeko datu-eredu berri batean eta udalen eta EINren arteko errolda-informazioa trukatzeko sistema berrietan oinarritua, eta eragile berriak barne hartzen ditu, hala nola katastroko informazioa.

## 2.2 Proiekturen deskribapen orokorra

Bizkaiko lurraldea 113 udalerrik osatzen dute, eta guztira gutxi gora behera 631.000 etxebizitza daude. Horietatik

Agiri honen bidez honako proposamen hau luzatzen da: erroldako, katastroko eta EINko datuen prozesamendu automatikoa egitea, horien artean harremanak ezartzeko eta etorkizunean gure errolda-aplikazioan sartu ahal izango den erroldari buruzko informazio gehigarria lortzeko.

Datuak automatikoki prozesatzeko zerbitzu hori tokiko erakunde bakoitzaren egungo informazioan oinarrituta egon dadin, honako datu hauek emango dira horietako bakoitzerako:

Tokiko erakunde bakoitzaren informazioaren jatorrizko fitxategiak:

- Katastroko datuak: Bizkaiko Katastroaren aplikazioan kokatuta daude, eta Lantikek/BFAk ematen ditu.
- Errolda-helbideen datuak: Biscaytik Fundazioa Proiektuaren Udal Administrazio Kudeatzailean edo Biscaytik Fundazioari atxikita ez dauden erakundeen sistemetan daudenak.
- Pertsonen, etxeen eta etxebizitzen EINren fitxategiak: EINren eskutik hiru fitxategi jasoko ditugu tokiko erakunde bakoitzeko, 2021eko urtarrilaren 1ean erroldatik, hautesle-erroldatik eta etxebizitzen erroldarako egindako lanetatik sortuak, errolda-erreferentzia gisa.

1. Pertsonen fitxategia (PP): erroldatutako pertsona bakoitzarentzat etxe identifikatzaile bat izango dugu esleituta.
2. Etxeen fitxategia (HH): Fitxategi horretako erregistro bakoitzak "etxe" identifikatzaile bat izango du, gako gisa balioko duena; horrez gain, erregistro bakoitzak etxebizitzaren identifikazio-kode bat ere izango du esleituta, etxearekin lotutako etxebizitzaren identifikatzaile gisa jardungo duen. Fitxategi horretan errolda-helbideari buruzko informazioa ere egongo da. Horrez gain, EINren bide-kodeari lotutako katastro-bidearen kodea erantsiko da, ahal den kasuetan, baita hautesle-erroldaren posta-hurbilketaren eta hutsunearen identifikatzailea ere (EINren barne-eremua, bere helbidea 2021-01-01eko egoeratik gaur egungora eramateko aukera emango diguna).
3. Etxebizitzen fitxategia (VV): etxebizitzaren identifikazio-kodearen bidez aurrekoarekin lotzen dena. Etxebizitzen fitxategian, hasiera batean, etxebizitza guztiak agertuko dira, nagusiak ez direnak barne. Horrenbestez, honako informazio hau jasoko du:
   - Etxebizitzaren identifikazio-kodea
   - Katastroko helbidea
   - Katastroko lurzatiaren koordenatu geografikoak
   - Katastroko bide-kodeari lotutako EINren bide-kodea, ahal denean.

- Akatsak zuzentzeko EINren fitxategiak: EINtik hainbat fitxategi jasoko ditugu tokiko erakunde bakoitzeko, eta, horiekin agiri honen xede diren zenbait zeregin egin behar dira: akatsak zuzendu, fitxategiak bete, fitxategi berriak sortu eta abar.

- Beste fitxategi osagarri batzuk:
  - Etxebizitza-unitateen jabeen informazioa

Analisi-, tratamendu-, egikaritze- eta entregatzeko zeregin horiek garatzeko, prozesu osoa hartuko duen estrategia integral bat garatu eta plangintza bat entregatu beharko da, fase bakoitzari dagokionez honako alderdi hauek zehaztuta: toki-erakunde bakoitzak xehetasunez egin beharreko zereginak, mugarriak, entregak, dokumentazioa eta abar, eta atxikitako Bizkaiko toki-erakunde guztientzat gauzatzera eta amaitzera estrapolatuta.

### 2.2.1 Datuen analisia eta tratamendua

Datuen analisiarekin eta tratamenduarekin lotutako zeregin hauek egin beharko dira gutxienez proiektuan:

- Toki-erakunde bakoitzaren informazioaren jatorri diren fitxategietako datuak aztertzea.
- Horien arteko loturak eta baliokidetasunak identifikatzea:
  - Erroldako helbidea eta katastroko helbidea lotzea; helbidearen maila desberdinen arteko loturak bilatuz: bideak, polizia-zenbakia, atea, solairua, etab.
  - Toki-erakundeen errolda-fitxategiaren errolda-helbidea eta katastroko fitxategiaren helbidea, katastroko informazioa lortzeko: Zenbaki finkoa/elementua, katastroko erreferentzia, Etxebizitzaren identifikazio-kodea (EINren identifikazio-kode bakarra) eta toki-erakundearen errolda-datuetan sartu ahal izatea.
  - Erroldako eta katastroko fitxategiak, EINek emandako fitxategiekin, bai pertsonei, familiei eta etxebizitzei dagokienez, bai datuak zuzentzeko fitxategiekin.
  - .....

- Fitxategiak alderatzeko prozesua automatizatzeko beharrezkoak izan daitezkeen datu-bihurketak identifikatzea.
- Datuen prozesatze-eredua definitzea, bat-etortzeen ehuneko handiak lortzeko.
- Informazioa eta fitxategiak erlazionatzeko teknikak eta metodologiak definitzea.

### 2.2.2 Egikaritzea

Egikaritzeak datuak tratatzeko prozesamendu automatikoko zerbitzuak eskatzen ditu, aldez aurretik egindako definizioan oinarrituta, eta arestian aipatutako fitxategien baliokidetasunak eta erlazioak gauzatzea, toki-erakunde bakoitzerako honako zeregin hauek betetzeko eta gauzatzeko:

- Errolda eta Katastroko fitxategietako datuak gurutzatzea, eta horien irizpideak, erlazioak eta baliokidetasunak ezartzea, katastroko helbideen eta errolda-helbideen artean ahalik eta kointzidentzia gehien lortzen saiatzeko.

  Kointzidentzia-ehuneko horiek handitzeko, oso modu positiboan baloratuko da:
  - Software kartografikoko aplikazioak edo eskuragarri dagoenaz gain informazio gehigarria ematen duen beste aplikazio bat izatea: irudiak, koordenatuak..., tokiko erakundeen erroldako datuetan sartzeko gerora eman daitezkeenak.
  - Baliabideak ematea edo landa-lana egitea, datuak gauzatu eta modu automatizatuan tratatu ondoren falta den informazioarekin fitxategiak osatu ahal izateko.
  - Erroldako eta katastroko datuak beste fitxategi gehigarri batzuekin gurutzatzea, hala nola etxebizitzen jabeen fitxategiekin.

- Errolda- eta katastro-fitxategietako datuak EINek toki-erakunde bakoitzerako emandako pertsonen, etxebizitzen eta etxeen fitxategiekin gurutzatzea.

- EIN fitxategiak
  - A ATAZA: EINek emandako fitxategietan dauden akatsak zuzentzea:
    - A1. ataza- Etxebizitzaren identifikazio-koderik gabeko etxeen fitxategia
    - A2 ataza- Errolda-helbidea eta katastro-helbidea desberdinak dituzten erregistroak
    - A3 ataza- EINren bide-koderik gabeko etxebizitzen fitxategiaren erregistroak.
    - A4 ataza- Katastroko bide-koderik gabeko etxeen fitxategiaren erregistroak
    - A5 ataza- Etxeen bereizketa
    - A6 ataza- Etxe eta etxebizitzen fitxategiak hobetzea
  - B ATAZA: Lurralde-informazioa osatzea
  - C ATAZA: Kolektiboak

    Atazak horiek nola egin behar diren zehatzago jakiteko, Bizkaiko EINren gida kontsulta daiteke URL honetan:

    https://mpt.gob.es/prtr/transformacion_digital_modernizacion/ayudas_de_transformacion_digital_mo dernizacion/convocatoria2023-padron.html

  Prozesua gauzatzen den bitartean, beharrezkoa da jakinarazitako akatsak edo gorabeherak zuzentzea eta konpontzea.

- Aipatutako datuen tratamendua egin ondoren, landa-lana egin beharko da, datuen tratamenduaren prozesu automatizatuaren ondoren osatzeke dagoen edo inkoherentea den informazioa betetzeko edo zuzentzeko, bat-etortzeen gehieneko ehunekora iritsi arte.
  Landa-lanean lortutako datuak amaierako fitxategietan sartu beharko dira.

Biscaytik Fundazioak prozesua gauzatzeko eskatzen dituen iterazioak nahitaez egin beharko dira.

### 2.2.3 Entregagaiak

Hauexek dira jarduketa honen entregagaiak:

- EIN fitxategiak, datuen tratamendu automatizatuarekin eta egindako landa-lanarekin bildutako informazioarekin beteta.
- Fitxategien artean egindako baliokidetasunen zerrenda.
- Toki-erakunde bakoitzaren errolda-datuen fitxategirako, ezarritako baliokidetasunen bidez lortutako datu gehigarri berriak sartzea: Zenbaki finkoa/elementua, katastroko erreferentzia, EINren etxebizitzaren identifikazio-kodea (EINren identifikazio-kode bakarra), koordenatuak...
- Tokiko erakunde bakoitzak datuak prozesatzeko egin duen aurrerapenaren ehunekoaren jarraipen-txostena: Tratatutako datuen %, kointzidentziak, betetako informazioaren %, gainerako informazioaren %, abian diren erakundeen %, gainerako erakundeen % edo eskatutako beste edozein adierazle.
- Biscaytik Fundazioak eskatutako beste txosten batzuk.

Biscaytik Fundazioak eskatutako fitxategi guztiak behar bezala beteta entregatu beharko dira, Biscaytik Fundazioak fitxategiaren azken baliozkotzea berretsi arte.

## 2.3 Gutxieneko zehaztapen teknikoak

Hornitzaileak proiektua gauzatzeko esleitu duen lantaldeak honako eginkizun hauek bete beharko ditu:

- Proiektuaren kudeaketarekin zerikusia duten zereginak:
  - Proiektuaren kudeaketa eta administrazioa
  - BiscayTIK Fundazioari zehaztutako egoera-txostenak ematea, zerbitzua etengabe kontrolatu ahal izateko. Bertan jasoko dira egindako ahaleginak, metatuak, egiteke daudenak eta abar.
  - Harreman zuzena izatea BiscayTIK Fundazioarekin, egin beharreko lanak kudeatzeko.
  - Bileren aktak eta proiektuaren jarraipen-txostenak prestatzea.
  - Proiektuaren plangintza eguneratzea eta gauzatzea.

- Analisi funtzionalarekin zerikusia duten zereginak
  - Bilerak hainbat mailatan egitea, bilera-aktak prestatzea, etab.
  - Eskuragarri dagoen dokumentazioa aztertzea eta dokumentu funtzionalak egitea.
  - Jatorrizko datuen fitxategiak aztertzea eta horien arteko erlazioak identifikatzea.
  - Datuak automatikoki prozesatzeko zerbitzuaren xede diren funtzionaltasunekin lotutako betekizunak eta analisiak.
  - Lortutako baliokidetasunak baloratzea eta baliozkotzea.

- Prozesua garatzeko egin behar diren datuen tratamendua diseinatzea, dokumentatzea eta gauzatzea.
- Datuen tratamendua eta ezarritako erlazioak behar bezala egin direla ziurtatzeko egiaztapen- eta baliozkotze-irizpideak definitzea.
- Pleguaren xede diren zereginak behar bezala egingo direla ziurtatzeko beharrezkoak diren proben planak definitzea.
- Erakunde bakoitzeko txostenak sortzea, ezarritako neurketak edo irizpideak adierazita: Tratatutako datuen %, kointzidentziak, betetako informazioaren %, gainerako informazioaren %, abian diren erakundeen %, gainerako erakundeen % edo Biscaytik Fundazioak eskatutako beste edozein adierazle.
- Erabiltzaileentzako eskuliburuak eta prestakuntzak prestatzea, beharrezkoa izanez gero.
- Jakinarazitako akatsak edo gorabeherak zuzentzea eta ebaztea.

- Landa-lanak:
  - Bete gabeko datuak aztertzea eta horiek berresteko eta betetzeko lan-metodologiak edo -moduak definitzea.
  - Bizkaiko lurralde historikoan zehar mugitzea, datuak egiaztatzeko eta baliozkotzeko.
  - Entregatu beharreko amaierako fitxategietan informazioa betetzea, prozesu automatizatuen ondoren lortutako ehunekoak handitzeko.

- Biscaytikeko burutzari azalpenak ematea eta fundazioak lehiaketa honen xede diren zereginekin zerikusia dutela uste duen beste zeregin batzuek egitea.

## 2.4 Irtenbidearen diseinua

Lehen aipatu den bezala, funtsezkoa da prozesua hainbat alditan iteratzea ahalbidetuko duen irtenbide bat diseinatzea, izan ere, informazioaren jatorrizko fitxategien entrega bat baino gehiago egon daitezke, eta eremu-informazioa bildu ahala fitxategiak osatu eta datuen prozesu automatizatua berriro prozesatu beharko da.

Proposatutako estrategiak eta diseinuek honako baldintza hauek izan behar dituzte oinarri:

- Datuen analisiaren ikuspuntutik:
  - Datuen jatorrizko fitxategiak aztertzea (Bizkaiko Katastroa, erakundearen udal-errolda eta EIN fitxategiak)
  - Informazioa eta fitxategiak erlazionatzeko teknikak eta metodologiak definitzea.
- Datuen tratamenduaren ikuspuntutik
  - Zehaztutako eta beharrezko atazak eta iterazioak gauzatzea, informazioaren jatorrizko fitxategien arteko erlazioak ezartzeko eta ahalik eta gehien osatzeko, informazio gehigarria bilduz jabeen informazioaren eta landa-lanen bidez, etab.
- Fitxategien egikaritzearen ikuspegitik.
  - Baliozkotze-metodologiak ezartzea, egikaritzea behar bezala egin dela bermatzeko.
  - Fitxategietako informazioaren arteko kointzidentziak eta erlazioak % 100etik ahalik eta hurbilen egon daitezen lortzea.
  - Zehaztutako zereginak gauzatzea eta eskatutako fitxategiak entregatzea.

# 3 KONTROLA ETA JARRAIPENA

Enpresa lizitatzaileak atal honetan proposatu behar dituen zereginen helburua emandako zerbitzuaren egoeraren ikuspegia une oro izatea da, izan daitezkeen desbideratzeak eta ekintza zuzentzaileak identifikatu ahal izateko.

Lan horiek egiteko oinarria jarraipen-txostenak dira, eta dagozkien bileretan eta batzordeetan berrikusiko dira.

Enpresa lizitatzaileak proposatutako jarraipen-kontrolaren eredua deskribatu beharko du proposamen teknikoan. Zerbitzua ematen den bitartean aplikatuko da, ahalik eta zehatzen.

Biscaytik Fundazioak pertsona bat izendatuko du, eta pertsona hori arduratuko da haren garapena gainbegiratzeaz eta azken emaitza onartzeaz, enpresa esleipendunari beharrezkotzat jotzen dituen jarraibide guztiak emanez.

Enpresa esleipendunak arduradun bakarra ezarriko du Biscaytik Fundazioarekin, eta Biscaytik Fundazioaren jarraibide orokorrak jasoko ditu, erantzukizun horren solaskide gisa. Honako hauek arduratuko dira:

- Egin beharreko lanen plangintza, jarraipena eta kontrola egitea, eta lan horien kalitate-maila egiaztatzea.
- Biscaytik Fundazioak eskaerak jasotzea. Eskaera horiek Biscaytik Fundazioarekin aztertu eta planifikatu beharko ditu.
- Biscaytik Fundazioarekin izandako bilera-aktak egitea, lortutako akordioak ezartzeko. Hasiera batean, bileren asteroko maiztasuna ezarriko da. Bileren helburu nagusia izango da egiten ari diren lanen jarraipena egitea, desbideratzeak identifikatzea, bai eta horien aurrerapenaren puntu kritikoak edo geldiarazleak identifikatzea ere.

Lanak amaitzean, onartutako balorazioaren arabera fakturatuko ditu hornitzaileak lanak. Biscaytik Fundazioak benetan entregatutako lanak berrikusiko ditu, eta haien BOEa emango du.

Biscaytik Fundazioak beretzat gordetzen du egindako lanen kalitate-kontrola, eta gutxieneko baldintzak betetzen ez dituztenak baztertu ahal izango ditu, bere irizpideen arabera. Hori guztia, Biscaytik Fundazioak kontratatutako zerbitzuen kalitate baxuen edo atzerapenen ondorioz ezar ditzakeen zigorrak gorabehera, kontratua suntsiarazteko arrazoi justifikatua izango da.

# 4 BALDINTZA BEREZIAK

Enpresa lizitatzaileek hizkuntza ez-sexista erabili beharko dute proposamenak egin eta aurkezterakoan. Era berean, enpresa esleipendunak, kontratua indarrean dagoen bitartean, hizkuntza ez-sexista erabili beharko du behin betiko edozein dokumentu idatzitan edo digitaletan, eta datuak sexuaren arabera bereizi beharko ditu pertsonei buruzko edozein estatistikatan, hori guztia Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 2.3 artikuluaren babesean. Bertan, errespetatu beharreko printzipio orokorrak adierazten dira.

## 4.1 Lantalde eta betekizunak

Enpresa esleipendunak eskatzen zaizkion zerbitzuak behar bezala egiteko behar dituen giza baliabideak eta baliabide materialak jarri beharko ditu.

Enpresa esleipendunak mugikortasun geografiko osoa izango du, eta zerbitzuak Biscaytikek eskatzen duen tokian eman beharko ditu, eta bere ekipo osoa edo haren zati bat lekuz aldatu beharko du, beharrezkoa denaren arabera, inolako kargu gehigarririk gabe. Era berean, esleipendunak konpromisoa hartzen du Biscaytikek beste enpresa edo erakunde batzuekin hitzartzen dituen bilerak egiteko.

Zerbitzua emateko, beharrezkoa da proiektua ezarritako epean gauzatzeko behar den lantalde izatea, gutxienez 10 pertsonako taldea beharrezkoada, 2 profil teknikoz eta 8 aholkulariz osatua. Fundación Biscaytik Fundazioarekin koordinazio-lanak egingo dituen figura gehigarri bat beharrezkoa da. Pertsona hori bakarra izango da Biscaytik Fundazioarekin, eta ez du zertan arduraldi esklusiboa izan. Egin beharreko lanen plangintza, jarraipena eta kontrola egiteaz arduratuko da, bai eta haien kalitate-maila egiaztatzeaz ere. Pertsona horrek jasoko ditu Biscaytik Fundazioaren jarraibide orokorrak, eta erantzukizun horren solaskide gisa jardungo du.

Kontratua indarrean dagoen bitartean taldearen osaeran edozein aldaketa eginez gero, ezingo da aldatu azalpen-memorian aurkeztutako egiaztapena. Aldez aurretik, Biscaytik Fundazioari jakinarazi beharko zaio, eta Biscaytik Fundazioaren berariazko baimena eduki beharko da.

Enpresa esleipenduna arduratuko da Biscaytik Fundazioak eskatzen dituen teknologia/funtzionaltasunetan bere langileak etengabe prestatzeaz. Prestakuntza horren kostua eta enpresa esleipenduneko langileek prestakuntza horretan ematen duten dedikazioa enpresa horren kontura izango dira, eta ezin izango zaio inolaz ere egotzi Biscaytik Fundazioari kontratuari eskainitako kostuari eta/edo denborari dagokienez.

Enpresa esleipenduneko langileen beharrezko ekipoak, lizentziak, komunikazioak eta joan-etorriak enpresa esleipendunaren kontura izango dira.

Esleipendunak zerbitzua ematen duten langileak kontrolatu eta gainbegiratuko ditu, eta gaixotasuna, oporrak eta absentziak daudenean, beste langile kualifikatu batzuekin ordezkatuko du.

Hornitzaileak proposatutako taldeak karatulako 16.b atalean eskatutako baldintzak bete beharko ditu.

## 4.2 Entregatzekoak

Dokumentazioa euskarri elektronikoan emango da, proiektuaren jarraipena egin ahal izateko. Dokumentazio hori eguneratuta egon beharko da proiektuan zehar, eta haren historia mantendu beharko da. Gutxienez honako hauek aurkeztu beharko dira:

- Prozesuen definizioa.
- Metodologien definizioa
- Proiektu-planak
- Analisi Funcionala
- Jardunbide egokiak eta horiek ezartzeko planak definitzea.
- Abiarazte-txostena.
- Jarraipen-txostenak.
- Itxiera-txostena.

- Bilera-aktak.
- Arestian aipatutako fitxategiak
- Zerbitzuarekin lotutako beste dokumentazio bat.

## 4.3 Penalizazioak

Baldintza teknikoak betetzen ez badira, betetzen berandutzen bada edo gaizki betetzen badira, karatulan eta berariazko klausula administratiboen pleguan ezarritako zigorrak ezarriko dira.

## 4.4 Bermealdia

Enpresa esleipenduna arduratuko da kontratatutako lanak behar bezala egiteaz eta lan horietan egon daitezkeen eta kontratuaren indarraldian jakinarazten diren akatsak zuzentzeaz. Kontratuaren indarraldia amaitutakoan, berme-epeak indarrean jarraituko du hurrengo sei hilabeteetan.

Bermea baliozkoa izango da, baita Biscaytik Fundazioko langileek hura egin edo garatu bitartean aztertu badituzte edo egiaztapen, balorazio edo ziurtagiri partzialetan onartu badituzte ere.

Berme-aldian ezingo dira fakturatu enpresak gauzatu behar dituen ekintzak (akatsen zuzenketa).

## 4.5 Lanen kontrola

Biscaytik Fundazioak beretzat gordetzen du egindako lanen kalitate-kontrola, eta gutxieneko baldintzak betetzen ez dituztenak baztertu ahal izango ditu, bere irizpideen arabera. Hori guztia, Biscaytikek kontratatutako zerbitzuen kalitate baxuen edo atzerapenen ondorioz ezar ditzakeen zigorrak gorabehera, kontratua suntsiarazteko arrazoi justifikatua izango da.

Enpresa esleipendunak zerbitzuaren kudeaketa eta jarraipenerako konponbide mekanizatuak proposatuko ditu.

## 4.6 Jabetza intelektuala

Esleipendunak Biscaytik Fundazioari lagako dizkio kontratu honen baitan eratutako plan, sorkuntza eta dokumentu guztien egile-eskubideak eta jabetza intelektualeko eskubideak. Jabetza intelektualari dagozkion eskubideen lagapenak ez du denbora-mugarik izango eta esleipendunak kobratuko duen ordainsariaren barne dagoela ulertuko da. Ondore horietarako, Biscaytik Fundazioak esleipendunaren lana orokorki aldatzeko, eraldatzeko, erreproduzitzeko, banatzeko, argitaratzeko, erakusteko, erabiltzeko eta ustiatzeko eskubidea izango du.

Esleipendunak ezin izango du ikerketa osoa edo zati bat erabili, ez zuzenean ezta zeharka ere, munduko edozein lekutan egin lezakeen beste enkargu batean.

Lizitatzaileak Biscaytik Fundazioari eman beharko dizkio fitxategi guztien iturriak, baita erabilitako baliabide teknologiko guztiak ere.

## 4.7 Genero ikuspegia

Dagozkien proposamenak egin eta aurkezteko, enpresa lizitatzaileek hizkera ez sexista erabili beharko dute. Halaber, enpresa esleipendunak, kontratua indarrean den bitartean, hizkera ez sexista erabili beharko du behin betiko dokumentu guztietan, izan idatziak edo digitalak, eta, pertsonei dagokien edozein estatistika egiteko, datuak sexuen arabera banandu beharko ditu. Hori guztia Emakumeen eta gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 2.3 artikuluari jarraikiz, zeinean errespetatu beharreko printzipio orokorrak zehazten baitira.

Enpresa esleipendunak kontratuaren helburu den prestazioa egin izanaren azken justifikazioan, hala badagokio, txosten bat aurkeztu beharko du, kontratazioan generoak izan duen eraginari buruz, adierazleak eta datuak sexuen arabera banatuta, hala erabiltzaileenak nola onuradunenak, edo zerbitzua ematen duten langileenak, aplikatutako berdintasun-neurriak ebaluatzeko aukera izateko.

# 5 ARGIBIDEAK

Edozein kontsulta edo argibiderako, Biscaytik Fundazioak ondorengo helbidea jartzen du enpresa eskaintzaileen eskura:

eskaintzak@Biscaytik.eus

Izenpetua: Kontratazio organoa

# I. ERANSKINA

| *KONTRATUETAKO DATUEN BABESARI BURUZKO INFORMAZIOA*<br>*2016/679 ERREGELAMENDUA (EB) ETA DATUEN BABESARI ETA ESKUBIDE DIGITALEN BERMEARI BURUZKO 3/2018 DBLO* |
|---|
| Biscaytik **Tratamendu-eragile** eta harremanetarako |
| Biscaytik Fundazioaren zuzendaritza kudeatzailea. Zugatzarte 32, Getxo- 48930- Bizkaia |
| **Tratamenduaren eragilea** |
| *Pertsona kontratista* izango da. |
| **Tratamenduaren arduraduna** |
| Biscaytik Fundazioaren zerbitzua jasotzen duten toki-erakundeak. Informazio hori eskuragarri dago Biscaytik Fundazioak tratamenduaren arduradun gisa egiten duen jardueran argitaratutako Tratamendu-jardueren Erregistroan. |
| **Datuen babeserako delegatua** |
| Tratamenduaren arduradun diren toki-erakunde bakoitzean eginkizun hori betetzen duten pertsonak. . Informazio hori eskuragarri dago Biscaytik Fundazioak tratamenduaren arduradun gisa egiten duen jardueran argitaratutako Tratamendu-jardueren Erregistroan. |
| **Pertsona interesdunaren eskubideak** |
| Interesatuak/eraginpekoak bere datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea du, baita horiek tratatzeko mugak jartzeko edo horren aurka agertzeko ere, eta horretarako:<br><br>Tratamenduaren arduradun diren toki-erakundeen helbideetara, fisikoak eta elektronikoak. Informazio hori eskuragarri dago Biscaytik Fundazioak tratamenduaren arduradun gisa egiten duen jardueran argitaratutako Tratamendu-jardueren Erregistroan.<br>Horrez gainera, interesdunak eskubidea du dagokion kontrol-agintaritzari erreklamazioa jartzeko. |
| **Tratamenduaren helburua** |
| Helburua da:<br>• Bizkaiko udal-erroldaren kudeaketa sistemaren eraldaketa digitalerako zerbitzurako beharrezkoak diren lanak |
| **Datuen tratamenduaren jarduerak** |
| Datu pertsonalen tratamenduak honako hauek barne hartuko ditu: |

| | |
|---|---|
| Datuak atzematea | X |
| Datuak grabatzea | X |
| Datuak egituratzea | X |
| Datuak aldatzea | X |
| Interesdunekin harremanetan jartzea | X |
| Datuak biltegiratzea | X |

| | |
|---|---|
| Datuak ateratzea (berreskuratzea) | X |
| Datuak kontsultatzea | X |
| Datuak lagatzea / zabaltzea | X |
| Datuak interkonektatzea (gurutzatzea) | X |
| Datuak erkatzea (egiaztatzea) | X |
| Datuak suntsitzea | |
| Tratamenduaren eragilearen informazio-sistemetan datuak kontserbatzea | |
| Datuen aldi baterako kopiak egitea | X |
| Datuen segurtasun-kopiak egitea, datuen berreskuratzea | X |
| Beste batzuk (zehaztu) | |

**Tratamenduaren zilegitasuna**

1. DBEOren 28. art.
2. 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, sektore publikoaren kontratuei buruzkoa.
3. Pertsona kontratistarekin formalizatu beharreko kontratua.

**Datu pertsonalen kategoriak**

| IDENTIFIKAZIO-DATUAK: | |
|---|---|
| NAN / IFZ / Identifikazio-agiri Ofiziala | X |
| Izen-abizenak | X |
| Posta-helbidea | X |
| Telefonoa | X |
| Sinadura | X |
| Nazionalitatea | X |
| Jaioteguna | X |
| Jaioterria | X |
| Adina | X |
| Egoera zibila | X |
| Helbide elektronikoa | X |
| Sexua | X |
| Gizarte Segurantzako zenbakia | |
| Irudia (argazkiak edo bideoak) | |
| Soinuak (audio-grabaketak) | |
| Sare sozialak (Twitter, Facebook, Instragram profilak, besteak beste) | |
| Seme-alaba kopurua | X |
| Ezaugarri pertsonalak (altuera, pisua, taila, besteak beste) | |
| Beste batzuk (zehaztu) | X |
| **BESTE DATU MOTA BATZUK** | |
| Prestakuntza-datuak (titulu akademikoak, diplomak, besteak beste) | X |

## 2024/017 – ZEHAZTAPEN TEKNIKOEN TXOSTENA

| | |
|---|---|
| Lanbide-esperientzia -edo -historia | X |
| Lanbidea | X |
| Lanpostua edo lanbide-kategoria | X |
| Lizentziak edo baimenak | X |
| Elkarte, klub edo bestelakoetan kide izatea | |
| Jabetza edo ondasunak | X |
| Ekonomikoak, finantzarioak edo aseguruenak (banku-datuak, kontu korrontea, txartel-zenbakia, zergei, soldatei, subsidioei buruzko datuak, besteak beste) | |
| Informazio komertzialerako datuak (jarduerak, negozioak, besteak beste) | |
| Transakzioei buruzko datuak (interesdunak eskainitako ondasun edo zerbitzuak, interesdunak jasotako ondasun edo zerbitzuak, besteak beste) | |
| Administrazioko arau-hausteei buruzko datuak | |
| Zigor arau-hausteei buruzko datuak | |
| Beste batzuk (zehaztu) | |
| DATUEN KATEGORIA BEREZIAK (DBEOren 9. art) | |
| Etnia- edo arraza-jatorria | |
| Iritzi politikoak | |
| Sinesmen erlijioso edo filosofikoak | |
| Sindikatu-afiliazioa | |
| Datu genetikoak | |
| Pertsona fisiko bat adiera bakarrean identifikatzera bideratutako datu biometrikoak | |
| Osasunari buruzko datuak | |
| Sexu-bizitzari edo sexu-joerei buruzko datuak | |

| Pertsona interesdunen kategorien deskribapena | |
|---|---|
| Herritarrak | X |
| Adingabeak (14 urte, DBEDBLOren 7. art) | X |
| 65 urtetik gorako pertsonak | X |
| Egoiliarrak | X |
| Bezeroak | X |
| Hornitzaileak | X |
| Atxikitako pertsonak edo kideak | X |
| Jabeak edo errentariak | X |

| | |
|---|---|
| Ikasleak | X |
| Legezko ordezkariak | X |
| Harremanetarako pertsonak | X |
| Eskatzaileak | X |
| Onuradunak | X |
| Langileak | X |
| Enplegu-eskatzaileak | X |
| Kargu publikoa duten pertsonak | X |

**Datuen jatorria**

Trataturiko datu pertsonalak hemendik datoz:

| | |
|---|---|
| Interesdunak edo beren ordezkariak. | X |
| Administrazio publikoak<br>Erregistroen interkonexio-sistemari atxikitako edozein administrazio publikok.<br>• Toki-erakunde bakoitzaren errolda-datuak | X |
| Erregistro publikoak | X |
| Sektore publikoko beste erakunde batzuk<br>• Lantik/BFAk emandako katastroko datuak.<br>• Lantik/BFAk emandako etxebizitza-unitateen jabeen informazioa. | X |
| Estatistiken Institutu Nazionala<br>• INE-k bidalitako pertsonen, etxeen eta etxebizitzen fitxategiak<br>• Akatsak zuzentzeko INE-k bidalitako fitxategiak | X |

**Datuen hartzaileak**

Datuak honako hauei lagako zaizkie:

- Bizkaiko Foru Aldundia.
- Toki erakundeei
- Estatistikako Institutu Nazionala.

**Datuak kontserbatzeko epea**

Kontratua gauzatzeko, berme-epeak irauten duen bitartean eta, ondoren, lege- eta kontratu-betebeharrak betetzeko behar den denboran gordeko dira.

**Datuen tratamendua amaitzean datuak eskuragarri jartzea**

Tratamendua amaitzen denean, *pertsona kontratistak* honako hauek egin beharko ditu:

Datuak suntsitzea, prestazioa eman ondoren. Suntsitu ostean, *pertsona kontratistak* suntsitu egin dituela ziurtatu beharko du idatziz eta Biscaytik Fundazioari eman beharko dio ziurtagiria. Edozelan ere, *pertsona kontratistak* kopia bat gorde dezake, behar bezala blokeatutako datuekin, prestazioaren betearazpenetik erantzukizunak sortu daitezkeen bitartean.

| Segurtasun neurri teknikoen eta antolakuntza-neurrien deskribapen orokorra |
| --- |
| Informazio-sistemak kategorizatzea eta segurtasun-neurriak aplikatzea, Segurtasun Eskema Nazionala arautzen duen maiatzaren 3ko 311/2022 Errege Dekretuaren arabera. |